

**“Euskaltzaindiaren laguntzailleak”  
Bizkaiko batzordearen batzar-agiria**

Bilbo'n, milla bederatzireun ogeta irurogeta bat garreneko Jorraillaren ogeigarrerean, arratsaldeko zazpiterdian batzartu zirean Euskaltzaindiaren etxean, Ribera kaleko seigarrenean batzorde onetako lagunak.

Ona biltzarrera agertu zirean batzarkideak: Oleaga eta Gorostiaga jaunak, euskaltzainak; Aita Onandia, Erkiaga, Peña eta Arrutza jaunak urgazleak. Ona etorri eziña agertu ebenak: Mokoroa, Ibartutxi eta Berasaluze jaunak.

Batzarra asita beingoan onako azalpen-idazki au irakurri eban zadorlariak:

**Alkargo au sortzeko erabilli doguzan atzera-aurrerak**

“1959'gko. Zemendia'n irakurri genduan Eibarr'en, Mogel idazle ospetsuaren omenaldi egunetan, emen, Bizkaia'n sortu nai ganduan alkargo bateri buruz, idazki bat. Euskaltzaindiari baimena eskatzen geutsan bertan gaiñera alkargo harri ori sortzeko Gipuzkoa'ko “Julio Urkijo Mintegia”, Nafarroa'ko, “Principe de Viana” izeneko, eta Araba'ko “Ramiro de Maeztu” deritxonaren antzean. Baiña, gurea beintzat, Euskaltzaindia'ren barrukoa izatea nai genduan, eta orregaitik, an aurrean egozan euskaltzain guztiak gure asmoen jakitun imiñi nai genduzan”.

“Atsegiñez artu eben euskaltzaiñak gure asmoa, eta itzez, aboz, esan euskuen alkargo onen asmoak ondo ikusten ebezala, eta aurrera yarraitzeko, guk, “Resurrección Maria de Azkue” izenarekin sortu nai genduan alkargo barri orrekin.”

“Geroago, urrengo urteko Urtarrilean, Donostia'n, Euskaltzaindia'ren batzarrerean, alkargo barri onen egitaraua aurkeztu genduan; baiña ez lengoaren izenarekin, “Euskaltzaindiaren Laguntzailleak” izenez baiño. Eta alkargo au, ez Bizka'i'rako bakarrik, Euskalerrri guztirakoa izan zeinkean.”

“Etzan batzar aretan ezetariko erabagirik artu, eta urrengorako itxi zan erabagirik artzea. Lendakari jaunaren ustez, guk aurkezturiko egitaraua luzeegia zan, eta zeozer laburrago egiteko eskatu euskun. Idazkiz bidaldu geuntsan Euskaltzaindia'ri gure egitarau orren laburpen bat, eta urrengo batzarrean, Zezeillekoan, atzera atara genduan gure arazoa mai gaiñera. Euskaltzaiñak orduan ezeben aurkako zerik erakutsi, eta guk, ori ikusita, gure alkargoa Euskaltzaindia'ren barrukoa zan ezker, ia bazkun orren ezaugarria guk gure alkargoan erabilli geinkean itandu genduan, eta baietzkoa emon yakun. Beraz, ezaugarria erabiltzeko baimena izan ezker, gure

alkargoa bazkun orren barruan egoala uste bete-betea geunkan, eta gure bazkideei dirua eskatzeko orri batzuk zabaldu genduzan.”

“Aprille’ko batzarrean oster, guk dirua eskatze orreri buruz, eztabaida gogorra sortu zan Euskaltzaindia’n, eta batzuen eta besteen iritziak berezitu egin zirean. Guk, ezkenduala dirua Euskaltzaindia’rez izenean eskatu, bazkun oneri gure lanekin laguntzeko egin bear genduzan lanetarako baiño, eta besteak, Euskaltzaindiaren izenean eskatu genduala, ta bazkun orren kutxara yoan bearko zireala diruok.”

“Mayetzeko batzarrean beste idazki bat irakurri genduan, alkargoari emon bear izango yakon bidea guk zelan ikusten genduan azaldurik. Izugarrizko eztabaidea sortu zan batzar aretan eta gure lan guztiak bertan bera itxirik, eten egin genduzan gertakizun guztiak.”

“Bagille’ko batzarrean Alvarez Emparanza’tar Yoseba Koldobika jaunak egitarau bat aurkeztu eban, gure ustez oso egokia; baiña Euskaltzaindiak ezaban berari buruz ezer erabagi, eta bai, euskaltzain letraduen eskuetan arazoa itxi.”

“Garagarille’ko batzarrean, Lojendio jaunak, beste ogitarau bat aurkeztu eban, au be, oso egokia gure ustez, baiña Euskaltzaindia’k ezaban beroneri buruz be ezertariko erabagirik artu.”

“Dagonille’ko batzarrean azkenez, Arrue jaunak, Alvarez Emparanza’rezari ukutu batzuek egiñaz, beste osoago bat eta guztien iritziz oso egokia, aurkeztu eban, eta au bai, au ontzat artu eban Euskaltzaindia’k, eta bertan, gure alkargoari Euskaltzaindia’rez barruan tokia emoten yakon. Azkenean ba, artu zan gure alkargo au Euskaltzaindia’rez barruan, 1960’gko. Dagonilla’n.”

“Trailleko batzarrean guk, ipuin liburu bi, egutegi bat, abesti liburuxo bi eta disko batzuek egiteko baimena eskatu geutsan Euskaltzaindiari, aurreko illean ontzat arturiko egiterauaren barruan olan egin geinkeala uste izanik; baiña “Junta Rectora” zalakoa izentau arte, ezin genduala olakorik egin erantzun euskuen.”

“Urrille’ko batzarrean be, etzan ezer erabagi, eta Zemendikoan, guk berenberegi eskatuta, izentau zan “Junta Rectora” ori eta onetan: “Miguel Arruza jaunaren karta bat irakurri da. Bertan eskatzen dau aurreko batzar batean ontzat artu zirean oiñarriai jarraiturik, albaitariñen izentetako batzar buruzagi jagon-sailekoa. Oleaga, Arrue, Mitxelena, Gorostiaga eta Lafitte jaunak izentau dira, eta urgazleen artetik, Arruza, Loidi eta Diez Ulzurrun. Urrengo batzarrean burua izentau bedi.”

“Bizkai’ko iru lagunak izentauta gengoan ezker, gure ustez, bagenduan batzarrearako deitu ta lanean asteko eskubidea, ta olan, Abenduaren amairugarren egunera-ko deitu genduan batzarrera toki onetan, beti legez; Baiña batzarra asi baiño leenago, Irigoyen jaunak, sakeletik atara eban karta bat irakurteko baimena eskatu eban.”

“Karta ori, Euskaltzaindiaren Lendakari jaunarena zan, eta bertan izentatzen zan Irigoyen jauna, gure batzarretara etorri, ta lekuko izateko, edo ikusmiran egoteko zeregiñetarako. Guk aurretiaz Euskaltzaindia’ri baimena eskatu barik, eta batzarrean erabiliko zirean gaiak berari aurrez agertu barik, ezin geinkean batzarrik egin. Beraz, batzarrik egin barik alde egin genduan guztiok egun aretan.”

“Zezeillaren batzarrean idazki bat aurkeztu genduan Euskaltzaindian gure asarera erakusten, eta idazki au Oleaga, Gorostiaga jaunak eta neronek izenpetu genduan. Lendakariak batzar orretan esan eban argi ta garbi berak ezabela iñor lekukoztat izentatu, ta onetan gelditu zan arazoa.”

“Epailleko azkenengo batzarrean, Euskaltzaindia'ren erabagiz, gure arteko batzarrak euki geinkez aurrerantzean, eta ori dala ta deitu zaituegu gaur guztiok, ia noiz edo noiz lanean asten garean.”

Zadorlariak idazki au irakurritakoan aburu batez artu zan lanean asteko erabagia, eta onenbestez bukatu zan batzar au.

Urrengo egunean alkargo barruko sailen buruzagiei idazki onekin batera bidaltzen dautsugun karta bat egin yaken lanean asteko eskatuz.